

TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEA GARATZEN, S.A. SOZIETATEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Tolosako Udaletxean, 2022ko ekainaren 30ean

ELKARTURIK

Alde batetik, Xarles Iturbe Pasabán jauna, Tolosako Udaleko (IFZ: P2007600F) Turismo, Merkataritza eta Azoketako Zinegotzi Delegatua, Tolosako Udaleko Idazkari akzidentala Karnele Contreras Goikoetxeak lagunduta.

Bestetik, Iker Urruzola Aizpurua jauna, Tolosaldea Garatzen, S.A. sozietatearen (IFZ: A20500229) lehendakaria.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoan arabera.

Bigarrenak, Tolosaldea Garatzen S.A. sozietatearen izenean eta ordekaritzan, lehendakari gisa, 2020ko otsailaren 17an ospatutako Administrazio Kontseiluan hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AURREKARIAK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu planak edo politikak.

BIGARRENA.- Hiri ekonomia horren sustapenean, Tolosako Udalak turismoaren sektorea sustatzea lehentasuntzat jotzen du Hiri Ekonomiaren Plan Estrategikoan (2015), udalerriko enpleguan eta garapen ekonomikoan funtsezko eginkizuna baitu, eta, ondorioz, urteak daramatza alor horretan lanean.

HIRUGARRENA.- Zentzu horretan, 2021eko abuztuaren 20an, 2021/1429 dekretu bidez, erabaki zen Plaza Zaharreko 10 zenbakiko beheko solairuan kokatzen den 9483 erregistro finka Tolosaldea Garatzen SA erakundeari esleitzea, bertan Tolosaldeko turismo bulegoa kokatzeko asmoz.

Horren ostean, 2021eko irailaren 6an, emakida hitzarmena sinatu zen. Eta ofizialki turismo bulego berria, 2022ko urtarrilaren 14an ireki zen.



TOLOSAKO
UDALA



Tolosaldea
garatzen

LAUGARRENA.- Turismo bulegoa berriaren irekiera aprobetxatuz, eta kontuan izanda 2019. urtean Tolosako turismo bulegoak guztira 8.392 bisitari artatu zituela, turistei produktu berriak eskaintzea erabaki da. Horregatik, Tolosako Udalak souvenir edo oroigarri berriak sortu ditu, zehazki, katiluak eta aterkiak, eta oroigarri horiek turismo bulegoan salduko dira.

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmen honen sinadurarekin batera, Tolosako Udalak Turismo bulegoari honako produktuak entregatzen dizkio, jarraian zehazten den prezioan saltzeko:

Produktua	Kopurua	Prezioa / unitateko
Katilua	106 unitate	9 €
Aterkia	100 unitate	21 €

BIGARRENA.- Turismo bulegoak 2022ko abenduaren 15 arte izango ditu produktu horiek bulegoan salgai. Behin epe hori igarota, bi aldeek adostasunez erabakiko dute produktu horiek saltzen jarraitzea edo ez.

HIRUGARRENA.- Turismo bulegoak 2022ko abenduaren 22a baino lehen, Tolosako Udalarri salmenten zerrenda bat entregatuko dio, honakoak identifikatuta dituela: salmenta data, saldutako unitate kopurua eta prezioa. Zerrenda Udalean entregatu ondoren, Udalak faktura egingo du zerrendaren arabera eta abenduaren 31 baino lehen, Turismo bulegoak dirua honako kontu korrontera transferituko da honako kontzeptu pean: ES45 2095 5067 10 1060024816, Turismo bulegoa – oroigarriak.

LAUGARRENA.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

BOSGARRENA.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut.

Karmele Contreras Goikoetxa

Idazkari akzidentala

Merkataritza, Turismoa eta Azoketako
zinegotzia

Tolosaldea Garatzen, S.A-ko
Lehendakaria

Xarles Iturbe Pasabán

Iker Urruzola Aizpurua

